

EDERRAZ ERITXI BATZUK

Gai oni buruz bai esan daikegu: «buru beste aburu». Eder-zale izan naiz filosofu, danok daukagu onetzaz zer esana eta, geienetan, bi ez datoz bat. Ezin da argi esan ederra zer danik; eta orrelaxe gizaldietan, gerkarretatik asi ta gaur arte. «Pulchrum», ederra da mugatu, berezitu, adierazo nai dana, eta itz onegaz adierazo nai dana ez da beti bardiña, ez da gauza ber-bera: onek au uste ba'dau, arek bestera ulertzen gauza bardiña. Ortik ainbat eritxi kontrako, alkar artu eziñak nunbait.

Gizasemea gorputzez sartu oi da ar-emonean bere kidekoakaz: begiz ikusi, belarriz entzun, itz-egin, besteak urrean oar... Eta ederra, batez be, ikusmenean datza, ta entzumenean...; eta gorago jo ezkerro, zeregin, egintza ta izakera batzuk be ederrak dira; baita zientzi ta on-egite batzuk be. Ba-da, azkenez, izakiak berak bere-bere dauan ederra be, ta izakiz gaiñetikoa, Jainkoak or-emen esku-zabal ereindakoa. Izakia bat, egizko ta on danean, eder be ba-yaku.

Ederra esan oi yako, geienetan, atsegin yakunari. Atsegiña artu daikegu lora bat, gizaseme bat, txori bat ikusiaz; olerki, elebarri naiz idazlan bikain bat irakurriaz; irratiz naiz telebistaz itzaldi garai bat entzunaz: atsegin yakunari ederra deritxogu. Ikusi edo entzuten dogun orri buruz guk eritxi bat emon daroagu; olan nor bat, gauza bat eder dan ala ez ebazten dogu, ta orri eder-epaia deritxogu. Epai ori ez daukazu beti eder-maillan, gauza naiz pertsona bataz emondako eritxia, epaia izan daiteke ba estetika aldeetik bestelakoa be; eder-arloan gauza bat onela bereiztu gengike: epaia baiezkoa ba'da, gauza naiz pertsona ori ederra da, eta ezezkoa ba'da, barriz, motza, itsusia.

Orixegaitik, eder-epaia emon daikegu geure zentzuten azpian jausten danari buruz, geure irudimenez naiz adimenez sortu oi dogunari buruz. Or lora bat, bide ertzean jausita; or baita nik neure irudi indarrez erretako ames urdiñak, naiz neure adimen-kemenez biztu-azo ditudan pentsementu mee, sakonak. Eurok izan daitekez eder naiz motz, baiña neure adimenaren epaiepean dagoz; neuk esan nei motz ala eder diran. Ba-dira oindiño beste zer batzuk be, gizonak egindakoak, geienez beintzat baiezko epaia merezi dabenak: erti (arte) lanak dituzu oneik. Gizonak bere antzez eta trebetasunez buruturiko gauzak.

Zer orduan ederra? Ekiñez atara daiken zerbait; emen be, naiz-ta ederra zer dan egi-egiaz esatea zail izan, gaitasun bat dala autortu daitegu, edozein gauzak naiz izaki naiz itzaldik, kiñu naiz egintza batek beregan daroana. Au, esan dogunez, gorengo maillan nunbait, erti-lanetan aurkitzen da; ederra da, ba, arte-lanetan oiñarrizko gaitasuna: eder diralako, dira; ez, ostera. Edozein gauza yaku bear bada onurakor; erti-lan bat, alan be, ez da bere elburura eltzen ederra ezpada.

Erti-lana, zergaitik ete da eder? Itxura ala gaiagaitik? Zer biok ez dira nastau bear: gaia gai da, ta itxura itxura; gauza bat da gaia, ta ertilariak gaiari emon nai dautson edo emoten dautson itxura beste bat, nai-ko diferentea. Argin batek itxura bikaiña emon leikeo arrimokor zakar bati, gizaseme ospetsu baten arpegi-mukulua ortik ateratik. Poesi bat naiz pintura-lauki bat izan daiteke ederra, gaia itsusi samarra izanik be; itzaldi bat orobat izan daiteke eder, gai biurri samarra —eriotza, lapurreta— erabilli arren. Zer adierazo nai dausku onek? Erti-lanak dauan ederra ez dala gaiagaitik, ertilariak gai orri ezarri dautson itxuragaitik baiño.

Ederraren zatiak

Gauza au barrurago jorik, zati bik osotua ei dogu ederra. Orrela olerkari ez gitxik. Intxaur ale batek atal bi ditu, eskola ta mamiña; bardintsu, ederrak egiten dauskun barne-zauzkada bat-bera dala begitanduta be, bikiz egiña daukagu; guk zer bakar bat lez sumaturik be, ortxe dagoz ederraren atal biak, gai biak; eta onek ez dau ezertan be gai edo atal bion balioa gitxitzen, ez ikoltzen. Zeintzuk ete dira gai biok? Ia-ia esanda itxi dogu: bata, lenengoa, ederra osotu daroan gai betikoa, beti-bat eta alda eziña, eta au zenbateraiño dan ez da errez bereizten; bestea, bigarrena, zertzelada bati, bizi dan giroari, grina, oitura naiz garaiari dagokiona dozu. Eta, ain zuzen be, bigarren au barik, lenengoa ulertu ta taiutu eziña litzateke, ta, beraz, giza-izateari ondo ez letorkiona.

K. Baudelaire'k, eder-inguruan ainbat ordu igaro ostean, onela diño azkenez: «Aurkitu dot, ba-dakit zelan bereizi ta mugatu ederra, *neure* ederra. Zerbait gartsua da, ta tristea, zerbait oso erdi-illunekoa, susmo ta idurimenari bidea aske izten dautsona. Nai baldin bada, gauza sumakor bati, gizartean dogun gauzarik interesgarrienari, emakume baten arpegiari, esate beterako, neure gogai ta pentsamentuak ezartea. Buru xarmagarri ta ederra, emakumearen burua esan nai dot, ames-erazten dauana dozu batera, baiña modu naasian, atsegintsu ta triste; tristura, neke ta auleriz lausoturiko ideia batez zamatua; tira, alderen besteko, kontrako ideia bat; au da, sua, kemena, bizi-naia, ezetik edo etsitik sortutako atzera-aurrera dabilen mingostasun atxikia. Ezkutua, bakar-miña be, ederraren zantzu ta bereizgarri dituzu».

Askotxo izan dira urteak joan urteak etorri ederra zer dan eta nun aurkitzen dan ikasi ta jakin guraz alegiñak alegin burutu dabezanak. Ona A. Durerro'k diñoskuna: «Lurrean ez da bizi gizonik, giza-itxura ederrena zein danari buruz eritxi erabatekoa emon al daiketanik: Jainkoak daki bakar-bakarrik. Edertasuna ebatzeko erea eztabaidaz erabagi bear da. Gauza bakotxa bereziki ditun inguru ta zeaztasunekin ikusi bear da, eder uste doguna gauza batzuetan, beste batzuetan ederrik bakoa izan daiteke-ta. Edertasunari begira, «ona» ta «obeia» ez dira errez bereiztekoak; irudi bi diferenteak, alkarren antzeko ez litzakezanak egi-tea errez litzakigu izan be, bata sendo ta bestea bigunago, eta alan be, ez gintzatekez gai izango edertasunean zein dan nabariago epaitu ta azken itza emoteko. Ederra, gauza askotan aurkitzen dana izanik be, ez dakit zer izan daiteken».

Ederra ta gizartea

Olerki bat, adibidez, irakurteko egin oi dau poeta batek; irakurle geiago ta pozago aurkitzen da olerkaria. Ortaz, bada, erriagana jo bear dau batez be olerkariak; au albora itxi ta bere zorakeri-lurrinetan zirkin ba'dagi, orduan gogait egin daroa, osotu ditun aapaldiakin be nazkaturik. Irakurten gaitun erriak, ostera, ez gaitu iñoiz be saiets itxiko: erbi-txakur antzera, beti dogu atzetik, susmu erne ta ao-xuri bikain.

Ruskin (1819-1800) ingelesak gauza askori buruz idatzi euskun, baiña ederkera edo estetikaz usten ta eritxi gurenak zabaldu ebazan batez be. Sarri diño au bere idatzietan: «Erriari dautson maitasunak eusten dautso artisteari, ta ortxe, errian daukagu goi argiaren sorburu bikaiña be; artetea dogu, ezpai barik, erri bate oiturazko egoera adierazgattia». Ortan

egoan a,tinko egon be; eritxi au onartu ta ortan jardutea, jokabie
kaiña litzakigu guri be. Errira jo bear, da, norbere erriaren gunera;
ren kezakak eta miñak beretu bear ditu olerkariak sarri esan dog
Gaitezan gauza Euskalerria jaso ta duintzeko.

Ez dabilkigu oker idazle bera ederrari begira be. Jainkotiar ut
tilari batentzat itxura da gurenena, diño. Eta itxurak on osoaren
dagoz, onari ta txarrari, oitura ta erlejiñoari begira. Onek, barriz,
tik garoaz Jainko bat- ba-dala autortzera, Erti sortzailleak, ain zuzer
ezkutuki edo misterio bat dabe oiñarri. Jainkoaren dizdiz bat daroa
ra bakotxak, izadian gorderik dagoan zerbait. Berberak iñoan: «Si
daikezue: Jainkoak egiñiko guztia da eder, eta izadiak darakuskun
tia egi».

Onek, ostera, edertasunaren alderdi bat jatorki ikustera garoaz.
koaren gaitasunen dizdiz bat lez dogu ederra, Aren ezaugarri bat
geinke. Edertasun bi ezagutzen ditu Ruskin'ek: betikoa, eder-ere
bata, ta bizi-ederra bestea, giza-gorputzarena adibidez; eder biok ba
kemenez blei-blei daukaguz, griñaz ta bizitasunez gainezka. Ut zientz
olakoen mekanika: erti nausia gizon guren baten pentsamentua de
adierazota; kezakak ta egon-eziñez dardarka, aizeak daragion adar mee
ten antzera. Ez gero ederkeria, ertia ertiagaitik erabilli ta burutua.
ertiak, arteak izkera lez izan bear dau, bikain, oparo, etorri aundi
gauzen barne-gura azaldu ta agirian jarten dauana.

Ertiak azkenez, Ruskin ingelesarentzat, gizartea jaso ta duin-azo
alegiñak egin bear ditu, gizarteak beregan ditun balioak aintzat artu
eta Jainkoa be, guztion Egille altsua, atertu bage goretsiz. Izadian
kantari dozu ertilaria; onen arazoa, beraz, Jainkoari goratzarre egitea
baitik bat; teknika bere etika, ta on-gaiztoa berari dagokiona.

Margolari ta musikalariai iñotsen, abots zoli: «Margoztu naiz abes
aurretik, jente ona izan bearra daukazue; ta orduan, koloreak naiz de
ñuak osotuko dabe zuengan dagoan obenetarikoa».

Ona eder-sailleko beresitik pentsamentu batzuk. Gerakarrak leneng
—Platon, Plotino, Aristotele—, ta ondorengo askok eta askok ger
amaika gauza bikain irauli, ausnartu ta idatzi dabez. Aurrerantzean be
ziur gagoz, bardin jarraituko dau gizonak, ederra soilki ta ertia, gizonak
bere antzez eta trebetasunez sorturikoa aztertu ta zer deritxon ikusiz
orri buruzko eritxia ari ta oni adierazten. Ez da egiteko arlotea.

AITA ONAINDIA